

ERREPORTAJEA HERRIKO JENDE OSPETSUEN IZENA DUTEN KALEAK GEHIGARRIA KILIBARREN  
KIROLA JUAN MARI IRIONDO, 'EGO-TOKI' ELKARTEKO KIDEARI ELKARRIZKETA

# BARREN

ASTEKARIA

Kaleei pertsona ezagunen izena  
ipintzeko ohitura

EL GOITIBARRKO ASSAKARIA · 2007ko martiaren 26a/VIII. asteko 348. ziklo

Pedro  
Muguruza  
ETORBIDEA

FUNDICION DE  
Olezañ-1900

TRANSPORTES

41170

**Softlen**

analisi & programazioa

Antonio Arrillaga, 1

Tel. 943 748 105 • Faxa: 943 748 228

t-posia: nesarronousonian.com

<http://www.softlan.com>

## Partikular eta enpresentzako zerbitzua

tELEfonia  
finkoa




tELEfonia mugikorra



intErnEt



EnprEsEntzako  
zEr bitzua



**:Euskal**

**l'iffbanatzaile ofiziala.**



Derbya

Ez zait batere gustatzen Realaren eta Athleticen arteko partiduek hartu duten itxura. Bi taldeen anaitasuna itxurakeria besterik ez da, nahiz eta egunkariek eta telebistek kontrakoa erakutsi, seguruenik sutara egur gehiago ez botatzeko. Desagertu da 80. hamarkadako lzpirtua, ez dezagun geure burua existitzen ez diren pentsamendu idilikoekin engainatu. Elkarki bizkarra ematen dioten bi talde eta bi afizioaren arteko borroka da orain euskal futbolaren lara". Anoetan demaseko txistukadaz hartu zuten Athletic. San Mamesen beste horrenbeste gertatzen zaio Realari. Donostian ikusle gehienek txalotu egiten dituzte Athletici sartzen dizkioten golak. Bilbon berdina pasatzen da Realarekin. Batak galduz gero, bestea pozik, Lagun bati entzun nion domeketan pozik egoteko ez dela nahikoa Realak irabaztea, Athleticcek galdu beharra daukala baita. Nora ote doa pentsakera horrekin. Nahikoa lan dauka bakoitzak bere taldea animatzen. Batzuek beste botatzen die kulpak. Betiko kontua. Banatu ditzatela erruak erdibana, merezi dute eta. Bi taldeak ez dabiz ondo, bigarren mailaren mamua ez daukate urrutia. Zaleek erakutsi dezatela, behintzat, primerakoak direla, lehenengo mailakoak. Gipuzkoarren eta bizkaitarren arteko harremana modu txarrean aldatu dela ikusten dut askotan. Ez gaitzatela bide aldrebes eta burugabe horretan sartu. Bestela ere baditugu hamaika konponezin.

Aitor Zabaleta



Mundua erraz egiten

**Askotan** nagusiok ere ume izateko beharra daukagu eta gustora egingo genuke amets haurrak jolasetan eraikitako istorioekin.

Ikusten eta entzuten denetik haruntzago doaz eta mundu oso bat sortzeko gai dira objekturik txikienarekin ere. Kazola eta goilara batekin oskestra bateko zuzendari dira, zenbait piezekin arkitekto, triziklo batekin toureko irabazle eta pare bat pinturinekin Parisko kaleetako margolaririk trebeenak. Ametsak errealitate bihurtzeko gaitasuna daukate.

Nagusiok amets egiten dugu gauero, baina ez dugu gure ametsetan sinesten. Eta hala ere, haurrak guk hezitzen ditugu eta gu gara haien eredu. Hobe genuke guk ere haietaz zerbait ikasiko bagenu, mundua erraz egiten duten bakarrak dira-eta.

Amaia Lariz

erREPOrTajEa ..... 6

n1.0tZak ..... 10

..... 13

kiROIak ..... 19

aGenda ..... 24

## Urruzunoren begi izkutua



### 2001EAN ERE IN LEIKE<sup>9</sup>

In leike'k 2001 urterako ere aktibitate zerrenda luzea prestatu du. Iaz egin genituen zenbait errepikatu egingo dira; Beste batzuk ordea, berriak eta berritzaileak dira. Aurten ere iaz bezala, harrera ona izango dugulakoan gaude. Bide batez gure aktibitateetan parte hartu zenuten guztioi eskerrak eman nahi genizkizuke eta besteei 'In leike'ra hurbiltzeko gonbitea egitea baino ez zaigu geratzen.

Euskal Kultur Hilabetearen antolakuntzaren inguruan sortu diren zenbait gaizki ulertu argitzeko zera esan nahi genuke: 'In Leike'k ez duela inongo alderdi politikorekin elkarlanean deus antolatu.

Azken batean, Euskal Kultur Hilabetea 'In Leike'k pentsatu, antolatu eta aurrera eramandako kultur jarduera izan dela. Hala ere. Mendaroko Udalarari eskertu nahi genioke guk proposatutako ideia diruz babestu izana.

A.G.

NAN 15393420

Mendaroko 'In Leike' taldearen izenean

Orain, aparkalekua bilatzen eta kotxe ilaran munizipalaren aginduaren zain ihes egiten digu bizitzak,

produzitzen, makinaren aurrean norentzat eta zertarako ez dakigula. Larunbatetan tabernak betetzen ditugu eta zahar eta gazteen bereizketa Loriton ezarritako harresiarekin nabarmentzen dugu, kalean gora edo behera.

Konzentrazioarako daukagun joerarekin artaldea dirudigu, eta bizitza modernoaren sustantzietatik elikatuz, jakinminerako gosea suntsitu eta ardi beltzak isolatzen ditugu. Denda txikiak itxi eta erraldoiek hornitzen gaituzte. Aisialdirako alternatibak ugaltzen diren neurrian murrizten dira gure kabuz erabakitze bideak. Eta zaratak, elektrotresnak, modak, txutxumutxuak bidertu ahala husten dira esateko ditugun hitzak. Nonahi jartzen ditugu argiak. Eta argiako ikusten al dugu?

Mikel Artola

## Twandakako Enpresa Ingeniaritza

Enpresarekin lanean garatutako fanbide proiektua.  
Lan kontratua lehen egunetik.

### Bilera informatiboa

J Urtarrilaren 31an, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.

318:30ean Makina Erremintaren Institutuko instalazioak bisitatuko dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

### Prestakuntza ikastaroa

J Makina Erremintaren Institutuak ingeniaritza-probetarako prestakuntza ikastaro bat eskaintzen du. Ikastaroa, martxoaren 3tik maiatzaren 26ra izango da, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

as ur ea

▪ Makina Erremintaren Institutua  
San Roke Auzoa, 1  
20870 Elgoibar

▪ Tel: 943 74 41 32  
Faxa: 943 74 41 53  
E- maila: ingenieria@fmh.es

■ Ordutegira:  
08:00-13:00      14:30-17:30






• Henitar batek honako kexa hau luzatu digu: "Anbulatorio aurrean elbarrituentzat dagoen aparkalekua okupatuta egon ohi da sarritan. Jendeari arreta piska bat eskatuko nioke". Bestalde, urgentziaren bat dagoenean, aparkatzeko leku eza salatu nahi du emakume honek.

## gli 11A11—

• Neska batek honako galdera hau luzatu digu. **IMHtik Kiroldegira doan bidetxurra asfaltatzeko asmorik ba al dago?**

Udaleko Hirigintza Sailera jo dugu eta hona hemen bertatik erantzun digutena: "Momentuz ez dago bide hori asfaltatzerik. Zerbait egitekotan, etxeak bukatu zain egon beharra dago. Bestalde, leku hori terreno partikularra da eta oraindik ez dakigu Udalak zer egin dezakeen".

• Mutil gazte bat etorri zaigu BARREnera madalako obren aurrean ikusi duen zikinkeriatz kexatzera: "San Frantzisko kalera ematen duen aldea batez ere, egoera nazkagarrian dago. Obretako hondakinetaz aparte, kaleko zakarrak ere pilatu dira bertan", -esan digu arduratuta.



• San 14lge1 bailara inguruko zelaietan animalientzako tranpa ugari dagoela salatu nahi du bertako bizilagun batek: "Pertsonaren bat bertan harrapatu baino lehen, ipini dituenari kentzeko eskatuko nioke. oso arrisksua iruditzen baitzait".



# Kaleei pertsona ospetsuen izenak ipintzeko ohitura

*Lerro hauek irakurizen ari zareten asko eta asko Pedro Muguruza, Antonio Arrilcrga, Pedro Migel Urruzuno edo Elgoibarko beste hainbat kateetan biziko zarete. Horrek izanik ere, agion ez dokizuena zuen bizilekua diren kaleei izena ematen dieten horiek elgoibartar ilustreak izan zirek da. Pedro Muguruza adibidez, arkitekto famatua izan zen, Antonio Arrillaga medikua, eta Pedro Migel Urruzuno, berriz, idazka eta apaiza. Erreportaie honetan herriko kaleei eta txokoei izenak jartzerakoan icrrraitzen den prozesua argitzen saiatuko gara. Bide batez, kaleei izena ematen dieten elgoibartarren bizitzari buruzko hainbat datu ere eskainiko dizkizuegu, nor izan ziren eta zergatik iritsi diren kale bati izena ematera ulertzeko.*

**B** lanea Salegi, Udaleko Kultura Saileko arduradunak, azaldu digu herriko txoko eta kaleei izen bat edo beste nola jartzen zaien. Blancak aipatu digu normalean Hirigintza Saitetik jasotzen dutela toki bati izena jartzeko agindua "Urbanizazio berri bat egiten hasten direnean izen bat pentsatzen joateko esaten

digute. Elgoibarko 'Basarte' kalea da kasurik argiena eta berriena". Kultura Sailean partikularrek edo herriko elkarteek egindako eskaerak izaten dituzte, "jendeak kale hatek bere izena izatea mereziko luketen elgoibartarren izenak aditzera ematen dizkigu. Eskaera hauen eta tokiaren herezitasunen arabera erabakitzen ditugu gauzak", Hasteko herriko etnografoei eta historialariei beraien iritzia eskatzen diete. "Gure kasuan Pello Arrietari eta Koldo Lizarralderi eskatzen dizkiegu interesatzen zaigun tokiari buruzko erreferentziak eta datuak, lehen zer egon zen toki horretan, elgoihartarrek zein izenekin

**Ofizialki izen bat erabaki arren, herritarrek izen hori ez erabiltzea gerta liteke eta berriren bat asmatzea**

ezagutzen edo identifikatzen duten, etab. Adibide bat jartzearen, kale bati jarri diogun azken izena 'Xixilion' izan da, Autonomia eta Santa Ana kaleen tartean. Leku horretan izen bereko baserri bat izan zelako hartu da erabaki hori". Horrelako aurrekari historikorik izan ezean elgoibartar ezagun baten izena jartzea izan daiteke aukera bat, "Gabriel Kruzalegi

kalearen (Iñigez karkizano kaletik gertu, Elgoibarko Ikastolatik aurrera) kasua izan da azkena. Azkenik, izenak jartzeko beste aukera bat logika erabiltzea izan daiteke. Urasandi, adibidez, uraz edo ibaitik haruntz dagoelako: Deba kalea Debarako bidean dagoelako, etab. Azken erabakia Udaleko Gobernu

Batzordeak hartzen du. Dena den, gerta likete ofizialki izen bat erabaki izanagatik herritarrek izen hori ez erabiltzea eta berriren bat asmatzea. Elgoibarren Loritoko aldapa esanda errazago ulertuko da zein tokitaz ari garen edo berdin Plaza Handia erabiltzen dugunean, Fortien Plaza beharrean.

**Antonio Arrillaga**

Medikua (1886-1961)

1886ko urtarrilaren 17an jaio zen Arnoate baserrian. Elgoibarko mediku ezaguna izan zen. Ospitalea San Inazio ka]jean zettkan. Gizon jakintsua, traumatologia atalean ospea izan zuen. Horrez gain, Elgoibar eta orokorrean, Euskal Herriaren historialari eta ikertzaile izan zen. Herriko alkate izan zen 1918-20 eta 1924-30 urte bitartean. Izpiritu kristauduna, gizon ona eta lagun hobea zela esaten dute ezagutu zutenek. Mendizalea eta kirolzalea oso, pilotan ere jokatzan zuen.



urtean 'Estarta y Eeenarru S.A.' enpresak 611 langile zituen. Geroago 'Sigma' izenez ezagutu genuen enpresa. Lantegiak ezezik, bertako langileentzako eraikitako auzoak ere izen herbera darama. Lehendabizi prentsak egiten zituzten, haina 'Sigma' markako josteko makina izan da fabrikatu izan zuten produkturik ezagunena. Ondoren, erraminta makinak fabrikatzen hasi ziren. 1955. urtean hil zen Bartzelonan.

**Aita Agirre**

Apoiza (1863-1941)

Francisco Agirre Elgoibarren jaio zen 1863ko otsailaren 23an. Eliz ikasketak ernaitza bikainekin burutu ondoren, 1887an apaiz egin zuten. 1887ko abenduaren 21ean Fulkier-era iritsi zen, Txinako probintzia hatara. Lana asko eta gogor egin zuen

garrantzitsuak ere bai. Beti euskaraz eta hizkera herrikoian idatzi zuen. Gai arruntak eta egunerokoak, inguruko pertsonen buruzkoak. Argitaratuta dauden tituluak: "Euskalenitik zerura", "Irtt-Ziri", "Sasiletratu baten ziria", "Ur-zale baten ipuiak" eta "Urruzuno'tar F.M.en ipuiak".

**Eulogio Estartct**

Enpresaria (1891-1955)

Santa Ana eta San Inazio kaleetan tailerrak eduki zituen. Taladroak eta urdaia mozteko makinak egiten zituen. Teodoro Eeenarrokekin hatara "Estarta y Ecenarro" sortu zuen 1913an, 1943. urteko irailaren 1in "Elkarte Anonimo" bilakatu zen. 1955.

**Pedro Migel Urruzuno**

Idazlea (1844-1923)

Gaztetan Lesakan bizi izan zen. Idatzi zituen ipuin batzuk han girotuak daude. 1870erako apaiza zen eta 1876ko urtarrilaren 18an Elgoibarko parroko izendatu zuten. Dena dela, ia bizitza osoa Mendaron igaro zuen, Garagartzako parroko lanetan (1879-1890) eta hil arte Agustinoen kaperau moduan. Bizitzako zati honetan idatzi zituen ipuinik gehienak. Garaiko euskal argitalpenetan (Euskalzale, Euskalerrria. Argia...) kolaboratzen zuen. Denetarik idatzi zuen, ipuinak, kontakizunak, olerkiak, bertsoak, gabon eta eliza kantak, eta itzulpen



kristautasuna Txinan hedatzearen. Bere aurka zeudenak ere asko ziren. 1900. urtean 300 pesoko dirusaria jarri zuten bere bizitzaren truke. 1911n Bikari Apostoliko eta Gotzain izendatu zuten. Hainbat eraikuntza altxatu ziren Txinan bere garaian: 30 eliza, 94 kaperak, katedrale bat, 159 eskola, ospitale bat, bi inprenta... Txinatar asko bihurtu ziren kristautasunera, eta Aita Agirrek bere bikanatoa zatitzeko eskatu behar izan zion Erromari, zatitutako guneetara misiolari gehiago hidaliz.

## **Pedro Muguruza**

Arkitektoa (1893-1952)

Madriko Arkitektura Eskolan eskuratu zuen arkitektu titulua 1916. urtean. Lanean hasi eta laster eskuratu zuen ospea. Besteak beste, Madriko eraikinetan egin zuen lanari esker lortu zuen izen ona: Prentsa jauregia (1924), 'Callao' zinea (1928), Pradoko museoaren erreforma, 'Coliseum' eraikina (1931)... Dena dela ospe gehien eman zion lana "Panteón y Basílica del Valle de los Caídos" izan zen (Guadarramako mendilerroan). 1938. urtean San Fernandoko Arte Ederretako Akademiara sartu zen, eta Arkitekturako Zuzendari Nagusi izendatu zuten.



## **Iñiguez Karkizano**

Marineia

Marinel entzutetsua izan zen. Loaisak Moluca uharteetara 1529. urtean gidatu zuenean, espedizioiko aguzil nagusia izan zen. Egin zuten bigarren saiakeran Loaisa buruzagia eta honen ondorengoa, Sebastian Eleano, hil egin ziren eta Martin liliñez de Karkizano elgoibartarrak hartu zuen espedizioaren agintea. Tidor uhartean hil zen pozoinbata. Elgoibarko herriak etxebizitza multzo bat eraiki zuen bere omenez. Donostiako Udalak ere kale bati bere izena jarri zion, marinel honen balentriak gogoan izateko.

## **Juan Mugerza** Korrikalaria (1900-1937)

Entzute handia lortu zuen herriz herri kros lasterketetan. Espainiako txapeldun izan zen 1917. urtetik 1923. urtera bitartean 5.000, 1.500 eta 800 metrotan. Honez gain, Espainiako txapeldun izan zen 110 metro hesietan, bai eta taldekako



erreleboetan ere. 1920an Anberesko (Belgika) olinpiadan, 5.000 metrotako lasterketan, 8. postuan geratu zen, eta 1.500 metrotan, seigarren. Behobia-Donostia lasterketako lehen edizioa ere berak irabazi zuen. 37 urte besterik ez zituela hil zen, 1937. urtean. Gerra Zibilean Mungiako bonbardaketa batean galdu zuen bizia. Elgoibarren izan den korrikalaririk handienaren izenean 1943. urtean Juan Mugerza Memoriala sortu zen.

## **Gabriel Kruzelegi** Filipinetako Gobernadorea (1635-1689)

Bere bizitzako une batean Elgoibar laga eta Madrilera bizitzera joan zen. Madriko Santiagoko ordeneko zaldun izendatu zuten. Geroago, Gerra Kontseilu Nagusiko eta Sevillako 24etako kidea izan

zen. Barloventoko general izatera ere iritsi zen eta Erregeak galeoetako almirante izendatu zuen. 1684. urtean Filipinetako Gobernadore kargua hartu zuen. Herrialdea zaituta aurkitu zuen, lehengo gobernadorearen aldekoak batetik, eta Fray Felipe Pardo gotzainaren aldekoak hestetik. Gogor jokatu zuen Kruzelegik, gobernadore ohia epaitu eta erbesteratu egin zuen. Bera hil eta gero, berriz hasi ziren boterea lortzeko liskarrak.

## **Bernardo Ezenarro**

Irakaslea (1873-1956)

13 urterekin marrazketa lineala eta artistikoa ikasten hasi zen Eibarren. Donostian ikasketak sakondu ostean, Parisko Arte Akademiara amaitu zituen ikasketak Gipuzkoako Diputazioaren beka bati esker. Elgoibarrera bueltatzean Marrazketa Akademiaren ardura hartu



zuen. 1916an Arteen eta Lanbideen Eskola sortu zuen Elgoibaran. Bertako zuzendaria izan zen 78 urterekin jubilatu zen arte. Guztira 52 urte egin zituen irakaskuntzan. 1952ko ekainaren 29an Udalak omenaldia egin zion. 1969an herriko kale bati bere izena jartzea erabaki zuen Udalbatzak. Gaur egun Lanbide Heziketa Institutuak ere bere izena darama.



## Juan Mugerza Krosa antolatzen duen batordeak ez du gehiago jarraituko ANTOLATUKO AL DA JUAN MUGERZA KROSA DATORREN URTEAN?



**ANTONIO AZPILIKUETA**  
65 urte, jubilatua

Baietz uste dut. Ni aspaldiko urteetan ez naiz joan, baina hainbeste urteren ondoren ez dut uste antolatzeari lagako diotenik.

**ARANTHA SANTOS**

48 urte, erizain laguntzailea

Krosa galdu beharko ez litzatekeen gauza bat da, eta egingo dutela uste dut. Udalak ere bere laguntza eman behar luke antolatzeko.



**MARIA VICTORIA GONZALEZ**

42 urte, etxeakoandrea

Baietz uste dut. Hauek antolatu ezean gai honetan adituak diren beste batzuk egingo dute. Gainera, penagarria litzateke tradizioa horrela amaitzea

**LAURENTINA CASADO**

75 urte, etxeakoandrea

Baietz espero dut, nork ez dakit, baina norbaitek antolatuko du. Egongo da babesleren bat eta baita lanerako prest dagoen jendea ere.



**EMILIANO MARCOS**  
69 urte, jubilatua

Ez dakit jarraituko duen, baina nik nahiko nuke. Dirua haldin bada krosa antolatzeko arazoa, denok kolaboratuz aurrera atera beharko genuke.

**IVAN CAMALO**


33 urte, makinista

Pena litzateke ez antolatzea eta horrelako tradizioidun lasterketa batekin amaitzea. Aukera polita da guztiontzat beltzak-eta korrika ikusteko.



### T. URTEURRENA

2000ko urriaren 13an, 68 urte zituela hil zen  
JUANA AZPIAZU AZPIAZUren oroimenez  
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian  
larunbatean, hilak 27, arratsaldeko 19:00etan.  
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



## Udalak Alde Zaharreko merkataritzari buruzko ikerketa egingo du Herritarrek komertzioari buruz duten iritzia jasoko dute

**E**lgoibarko Udala herriko Alde Zaharra biziberritzeko lanetan hasi da. Izan ere, erdigunea zonalde babestua izendatu nahi dute. Horretarako, Alde Zaharra berriro beharra dago, baina oraingoz Eusko Jaurlaritzak ez du obrak egiteko dirurik emango, bai ordea, gune honi buruzko ikerketa egiteko. Udalak PERCO (Plan Especial De Reforma Del Comercio) delako dekretua kaleratu du komertzioa aztertzeko, eta Udalak dekretu honetaz baliatuz, Elgoibarko Alde Zaharreko komertzioa ikertu nahi du. Alkatearen esanetan, "ikerketa egiteko herria 15.000 biztanletik gorakoa izan behar da, baina guk



*Alde Zaharra 'bizirik mantentzea' da Cdalaren helhurna.*

Mendaro, Deba eta Mutrikurekin bat eginda dekretuaren arauak betetzen saiatuko gara. Ezinezkoa bada, Udalak

teknikari bat kontratatuko du komertzioa ikertzeko".

### Herritarren iritzia

Azterketa horren bidez berriro erdiguneko merkataritzaren egoera aztertu nahi da. Herritarrek faltan **edo soberan somatzen dutena** eta merkataritza arloan dauden arazoak nola konponduko lituzketen jakitea da ikerketaren helburua. Alkatearen esanetan, "ez litzateke egokia izango Alde Zaharra berriro eta etxei itxura dotorea eman ondoren, jenderik ez ibiltzea. Horretarako komertzioa beharrezkoa da, dendek, tabernek... bizia ematen dietelako kaleei".

## Sigma auzoko ur sarea berrituko du Udalak 17 milioitik gorako kostua izango dute lanek

**U**dalak Greyhound S.L. enpresa kontratatu du 'Sigma' auzoan ur potabile sarea berritu eta saneamendu lanak egiteko. Izan ere, bera da deialdi ofizialari erantzunez aurkeztu den enpresa bakarra.

Orain dela 30 urtetik gora eraikitako etxeak dira Sigmakoak eta ordutik ez da bertako tuberietan konponketa handirik egin. "Dagoeneko lur azpiko ur hodiak hondatuta daude, eta edozein egunetan apurtu eta urak gainez egiteko arriskua dago", esan digu



*Duela 30 urte baino gehiago eraikitako etxeak dira Sigmakoak eta bertako tuberietan ez da konponketa handirik egin orain arte.*

Gillermo Garate alkateak. Hori dela eta Udalak ia 18 milioi pezeta gastatuko ditu hodi berriak jartzen eta ondoren etxeetara bideratzen.

Greyhound enpresa aurki hasiko da lanean eta laster edateko ura inongo arazorik gabe izango dute Sigmako etxeetan. Udaletik adierazi digutenez, "jendeak sarri leporatzen digu herriko auzoetan ez dugula dirurik inbertitzen, baina hori ez da horrela. Bestela, ikusi besterik ez dago San Pedro bailarara ura eramateko lanetan gastatu dugun dirua eta orain Sigmako obretan inbertituko duguna".



### Jokin Plaza eta Blanca Salegi saritu ditu Gurutze Gorriak

Gurutze Gorriak urtero egin ohi duen bezala, aurten ere bere boluntario eta laguntzaileei esker ona adierazteko bi sari banatu ditu. Batetik, botazio bidez, Gurutze Gorriko bere kideek Jokin Plaza izendatu dute urteko boluntario (bere ordeiz Eneko Adurizek jaso zuen saria). Urte eta erdi ari da Gurutze Gorrian hainbat zerbitzu eginez. Bestalde, Blanca Salegiri eman diote laguntzaileerik onenaren saria. Taldetik kanpo elkarteari emandako laguntzarengatik jaso du garaikurra Blaneak.

### 'Zilarrezko saria eman die hixio Oliverik Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuari eta Gestio Eskolari




Joan den asteazkenean, hilaren 24an, Iñaxio Oliveri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburua Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan izan zen. Bertan IMHko eta Gestio Eskolako langileei Zilarrezko Qa emateko ekitaldia egin zuten. Aurrez ekitaldi ofiziala Donostiako Kursaal Jauregian egin bazuten ere, honako hau IMHko eta Gestio Eskolako langileen eguneroko

lana eskertzeko ekitaldia izan zen. Langile bakoitzak oroigarri bana jaso zuen. Zilarrezko Qarekin IMHren eguneroko lana bultzatzen da, eta Gestio Eskolak sari honen bidez etorkizuneko enpresa gestionatuko duten gazteen prestakuntza sendotu nahi du.

### BARREnek 2001eko gida komertziala kaleratu du

Urtero bezala aurten ere BARREnek Elgoibar eta Mendaroko Gida Komertziala kaleratu du. Gida honek denda, lantegi, taberna, elkarte eta beste hainbat zerbitzutako helbide eta telefonoak eskura izateko aukera ematen du. Izan ere, helburua Elgoibar eta Mendaroko zerbitzuak herritarren eskura jartzea da. Beraz, gaur BARREnekin batera zuen buzoietan jaso duzuen gida telefonoaren aldamenen jarri eta erabilgarria izango zaizue herriko komertzioekin bat egiteko.



## karkizano

San Frantzisko, 14 - Tei. 943 74 05 49



### OIERKI1GOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

943 82 01 09 'i2 Faxes: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, behea 20600 EIBAR

### guzlz Sistema fiaturala

BARIZE, ARMIARMA BASKULAR, ILDO,  
DERMATITIS, PSORIASIS, ZELULITIS,  
HAURDUNALDI, LODITASUN, ETB.  
KASUETARAKO BEREZIKI GOMENDATUA.

Zure erosotasunerako etxez-etxe  
zerbitzua ere eskaintzen dugu.

## EGUNERO

Telefona: 943 744 669

Mobila: 653 717 874

OSTEGUNETAN KONTSULTA Surya Belardendan

# Osasunean adituak

## ASMA

**B**ronkioetako airebideetatik airea igarotzea zaila denean sortzen da asma. Arnasestu krisiak agertzen dira eta bere jatorriak hauek izan daitezke: infekzioa, alergia, estresa eta airearen kontaminazioa.

Gehienetan, pertsonak hamar urte bete aurretik jakiten da asmatikoa den ala ez. Nerabezaroan diagnostikatzea ez da hain ohikoa eta are gutxiago berrogei urtetik gora.

Bronkioetako asma gaixotasun kronikoa da, baina egungo terapien bidez kontrola daiteke. Gainera, gaitza alergia eragindakoa bada immunoterapia bidez sendatzeko modukoa da. Baina gaixotasun kronikoa dituztenen %50ak baino ez du sendagaiaren dosi egokia hartzen.

Hauek dira asmaren tratamendua bertan behera uztea eragiten duten faktoreak: Dosiaren maiztasuna, botika emateko bidea, gaixoa kontrolatuta sentitzea, tratamenduaren nondik norakoen informazioa, inhalazio teknika, gaixotasun buruzko usteak.

Beste modu batzuk badauden arren, oraingoz egokienak inhalatutako sendagaiak dira, kortikoidearen eta agonista B2ren arteko konbinazioa, esaterako.

Hala ere, medikatzeko modurik onena sendagilearen eta gaixoaren harteko harremana da; gaitzaren berri izanez gero, tratamenduaren beharra hobeto ulertuko baitu. Asma izanez gero zaila da inongo medikaziorik gabe aurrera egitea, beraz, sendagilearen esanak ahalik eta egokien betetzea besterik ez dago.

iturria  
para ti' aldizkaria

## PAASAJISTAK

Victoria traegi

P. Migel Urruzuno. 31 \* Tel: 943 74 07 70

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen beladenoa natura, a. F da Bace inasala, makreclotika.

..... San Bartolome. 25 • Tel: 943 74 40 31

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya BelardenoalOsasu- : 3t,ralaren zure zertoa Elgoibarre'

..... San Frantzisko. 23 • Tel: 943 74 25 34

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

ikus ( 0 ot ko-obtometrista)

..... San Bartolome, 10 \* Tel: 943 74 37 34

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** ioptometria, tonornetrla, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko. 21 • Tel: 943 74 03 59

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko. 12<sup>9</sup> Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte. 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

San Bartolome. 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENEko 943 74 41 12ra

# Kili BARREN

## Alkortari omenaldia egin zioten espetxeratu zuteneko 15. urteurrenean

Oroigarriak bere semeak jaso zituen

Jokin Urain "Alkorta" euskal preso politikoa gartzelaratu zutenetik 15 urte bete zirela-eta, bere omenez hainbat ekitaldi izan ziren urtarrilaren 12 eta 13an. Ostiral gauean Azpilgoetako Kultur Etxean abokatu bat eta preso ohi bat euskal preso politikoei bizi duten egoeraz mintzatu ziren. Larunbat iluntzean egin zuten ekitaldi nagusia: lehenik, bertaratutakoek herria zeharkatu zuten presoek etxeratzea aldarrikatuz, eta gero, frontoian, txistulari, dantzari, bertsolari



txalapartari etab. en saioak izan ziren. Ekitaldian berak bidalitako bertso hunkigarriak ere entzun ahal izan ziren. Bere semeak jaso zituen hainbat taldek Jokinenzako propio presatutako oroigarriak.

## Santa eskea egingo dute Mendaron otsailaren 3an

Bildutako dirua, bertso eskola, dantzari taldea eta futbol taldearentzat izango da

Santa Ageda Egurenaren aitzakian urtero egin ohi den moduan, aurten ere, ohiturari jarraituz, Mendaron Santa eskean arituko dira hainbat koadrila, trikitalari eta bertsolariek lagunduta. Goizez baserri-baserri ibiliko dira kantuan eta arratsaldean, kalean. Bildutako dirua bertso eskola, dantzari taldea eta futbol taldearen artean banatzeko asmoa dute. Horrela bada, parte hartu nahi duen edonork larunbatean, otsailaren 3an, goizeko zortzi eta erdietan udaletxe parean dauka zita.



## • Gaztetxeari buruzko bilera egin dute Udateko ordezkariak eta gazteak

Hainbat arrazoiengatik atzeratu ostean, urtarrilaren 13an egin zuten Udaleko ordezkariak eta Mendaroko gazteak bilera. Orain arteko gaztetxe-gazteleku eztabaida albo batera utzita, bi aldeak hizketarako prest azaldu ziren. Horrela bada, gazteak akordio batera iritsi eta proiektua zehaztu ondoren Udalean aurkeztekotan gelditu ziren.

## ri Joane eta Enrike bikoteak irabazi du Tute Txapelketa

Joan den ostiralean, hilaren 19an, Gazte Asanbladak antolatutako Tute Txapelketa jokatu zen Mendaroko 'Ormola' tabernan. Txapelketa 22:30ean hasi zen eta sei bikotek hartu zuten parte. Giro politoan partaideen arteko lehia bizia izan omen zen, eta azkenean Joane eta Enrikek osatutako bikotea izan zen garaile. Txapeldunek 2 txanpan botila eskuratu zituzten.

## ■ Balet ikastaroa Josu Mujikaren eskutik

Duela pare bat aste hasita, Balet ikastaroa martxan dago Mendaroko San Jose Ikastolan Josu Mujika dantzari elgoibartarraren eskutik. 6 urtetik gorako edonork eman dezake izena, baldin eta dantzarako gogorik izanez gero. Ikastaroak astelehen eta asteazketan egingo dira arratsaldeko 16:30etik 17:30era.

Hilaren 17an banaiu ziren Mendaroko Udaleko Euskara Baizordeak antolatuta egin berri den Ipuin Lehiaketako sariak. Aurreko urteetan bezala, lehiaketak hiru kategoria desberdin izan ditu. Mendaroko San Jose Ikastolako O.H.O.ko 5. efa 6. mailako ikasleak. Debarreneko D.B.H. 1 eta 2. mailako ikasleak efa, Debarreneko Ertain ikas-tetzeko ikasleak. Guztira 78 lan aurkeztu ziren, inoiz aurkeztu den lan kopururik handiena. Lanak libreak, argitaratu gabeak eta aurretik inon saririk jaso gabeak izan behar ziren. Honako hau da ka-tegorien, sarien eta irabazleen arteko erlazioa.

### A KATEGORIA

1 saria

10.000 pta.ko materiala eta oroigarria

**Maite Olazabal**

"Bizitzaren Alde Beizta"

2. saria

5.000 pta.ko materiala

**Nerea Roteta**

"Jonen ametsak"

### B KATEGORIA

1.saria

12.000 pta.ko materiala eta oroigarria

**Jon Joseba Bergaretxe**

"Txakurra eta enara"

2.saria

8.000 pta.ko materiala

**Ane Odria**

"Hitz egiten zuen piragua"

**Herriko lehena**

5.000 pta.ko materiala

**Joseba Juaristi**

"Dena bustu baino leben"

### C KATEGORIA

1.saria

35.000 pta. eta oroigarria

**Maitane Mendikute**

"Biclezidorrean Dantzari

2.saria

20.000 pta.ko materiala

**Maite Solas**

"Paradisucrren bila"

**Herriko lehena**

10.000 pta.

**Joana Salgado**

"Halabeharrez zurtz"

# Partaidetza handia Mendaroko VI. Ipuin Lehiaketan

*Erreportaje honetan irabazleekin hitz egin dugu eta guztiei galdera berdinak egitea erabaki dugu. Hara hemen lau neska hauen erantzunak.*



## Maitane Mendikute

Zeri buruz idatzi duzu ipuina? Neska baten istorioa da. Mutil lagunarekin bizi da eta halako batean, hil egiten zaio mutila. Drogetan sartuta zegoen laguna eta zorrak lagatzen dizkio. Honek ezin die

zorrei aurre egin eta prostituzioan sartzen da, Egoe-ra jasanezin batera iristen da eta amarengana buelta-tzea erabakitzen du. Bukaeran, kotxe batek harrapatu eta hil egiten da. Horrela, mutilarekin elkartzen da berriro.

Aurreko urteetan aukeztu al duzu beste lanik? Bai. Aurrez ipuinak eskolarako egiten ditugunez, ez zait ezer kostatzen lehiaketara bidaltzea.

Saririk irabazi al zenuen? Bai. laz ere Mendaroko lehen saria irabazi nuen.

Aurten irabaztea espero al zenuen? Elgoibarko askok aurkeztu zuten beren lana eta ez nuen inola ere espero ezer irabazterik, eta gutxiago lehenengo saria eskuratzerik.

Datorren urtean berriro aurkezteko asmorik ba al duzu? Bai, gainera, aurten irabazi eta gero...

**Maite Olazabal**

Zeri buruz idatzi duzu ipuina? Mendi buelta egitera irteten den koardila bati buruzkoa da. Taldeko bat jauzi egiten da eta koman geratzen da. Egoera horretan dagoen bitartean beste mundu zoragarri batekin aurkitzen da eta ez du nahi berriro hona bueltatzerik. Komatik irteten denean ez da mendian gertatutakoaz gogoratzen, baina bai beste mundu horretan igarotako momentuetaz.



Saririk irabazi al duzu? Iaz ere lehenengo saria irabazi nuen eta aurren bezala, 10.000 pta. eman zizkidaten.

Aurren irabaztea espero al zenuen? Inola ere ez, maila altua baitzegoen.

Datorren urtean berriro aurkezteko asmorik ba al duzu? Bai. Ez zait idaztea asko gustatzen baina imajinario piska batekin, azkenean ipuinak nahiko ondo ateratzen zaizkit.

**Nerea Roteta**

Zeri buruz idatzi duzu ipuina? Jon ize-neko mutil bati buruz idatzi dut. Mutiko honek bi amets ditu. Lehena egia bihurtzen zaio, baina bigarrena, munduari buelta ematea, alegia, ez dela betetzen ikusten du. Piskanaka, ordea, munduan zehar mugitzen hasten da eta ume askok berak baino behar gehiago dituztela konturatzen da.

Aurreko urteetan aukeztu al duzu beste lanik? Ez. Iaz ez nintzen lehiaketan eskatzen duten adinera iristen eta ezin izan nintzen aurkeztu.

Irabaztea espero al zenuen? Ez, aurreko urtean idatzi zuten asko zeuden eta ez nuen inolako itxaropenik.

Datorren urtean berriro aurkezteko asmorik ba al duzu? Bai, gainera, idaztea gustatzen zait eta berriro ere saiatuko naiz.

**Joana Salgado**

Zeri buruz idatzi duzu ipuina? Gaztetatik ezagutzen diren bikote bat da, eta neska, bere idealak direla-eta, ETA-ren antzeko talde batean sartzen da. Bertan, inguruko jendeak ideia berdinak ez dituela konturatzen da eta baita talde horretatik ateratzen saiatu ere, baina ezinezkoa zaio. Azkenean, oso egoera latzera iristen dira eta biak beren buruaz beste egiten dute.

Aurreko urteetan aukeztu al duzu beste lanik? Eskolan ere ipuinak idazteko agintzen digute eta lehiaketako fetxarekin bat etortzen denez, ez zaigu ezer kostatzen lanak aurkeztea.



Saririk irabazi al zenuen? Bai. Duela bi urte Mendaroko lehena geratu nintzen beste batekin erdi bana.

Aurren irabaztea espero al zenuen? Ez. Eskolan denon esaten digute idazteko eta hori dela-eta ipuin pila bat aurkeztu eentuen. Nirea baino askoz hobekak zeudela iruditzen zitzaidan.

Datorren urtean berriro aurkezteko asmorik ba al duzu? Eskolan berriro ere idazteko esango digutela iruditzen zait eta zergatik ez, aurkeztuko naizelakoan nago.

# Sr7 etrnru zahavut



# F

ilabete honetako argazki zaharra Migel Angel Arriolak utzitakoa da. `Ospas-Gain' futbol zelaian atera zuten erretratua 1975ean. `Ospas-Gain' futbol zelaia oraindik berria zen garai hartan eta gaur egun baino belar gehiago antzerman daiteke bertan. Honako hauek dira argazkian agertzen diren `Beti Gazte' taldeko kideak:

Goian: J. A. Loiola , Andres Egaña, J.M. Garate (Animarte), Antonio Tarragual, Txomin Ulazia, Juan Jose Eizagirre, Migel Angel Arriola eta Andres Urbieta.

Makurtuta: Migel Mendikute, Jose Luis Urbieta, Jose Mari Urbieta, Juan Ulazia, Jose Antonio Zabaleta, Andres Lazarobaster eta Roke Arriola.

**AROR** PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
Haur eta helduentzako

— Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta —

AFASIAK, DISFONIAK, DISLALIAK, DISLEXIAK,  
HIZMOTELTASUNA, E.L.A.

Toribio Etxeberria 10, 6 ezk. EIBAR

Tel. 943 20 27 15

..... \ **OIERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan  
konponduko dizugu igogailua

all t' 943 82 01 09 Faxe: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, behe II 20600 EIBAR

**Kili BaRRen 4**



*Maider Gastesi eigoibartarra da. Duela bi urte amaitu zituen psikologia ikasketak eta arlo berezi bezain bitxi batetik bideratu du bere bizitza profesionala. Egun, Eibarko pisu batean egiten du lan arazo psikikoak dituzten pertsonekin. Proiektua AGUIFES elkartearen ardurapean dago. Arazo psikikoak dituzten pertsonen familiei laguntza eskaintzen dio elkarte honek. Ekintza ugari prestatzen ditu eta horien artean bat, pisu batean, astean zehar horrelako pertsonekin bizitzea da.*



## "Arazo psiKi(oak dituztenekin lan egiten dut acinc ez citut kolktibo berezi bct oezala trctatzenll

### ■ Nola sortu zen Eibarko pisuaren ideia?

Joxin Arregi, hemen ezaguna den apaiza, pertsona hauei laguntza eskaintzeko premiaz ohartu zen eta AGUIFES elkartearen berri izan ostean, elkarte honek Oiartzunen, Irunen eta Intxaurren horrelako pisuekin esperientzia zutela ikusi zuen. Parrokiak pisu bat lagatzeko aukera zuela jakin zuen. Horrela, 1999an zerbait prestatzen hasteko aukera izan genuen eta azkenik, abenduan, martxan jarri ginen.

### ■ Zenbat pertsona zaudete Eibarko pisuan?

Sei 'gaixo' daude eta bi begiraleren artean zaintzen ditugu, Peio Mujika eta nire artean, hain zuzen ere. Biok txandakatu egiten gara. Elkarren artean ezagutzen ez zirela kontutan hartuta, oso ondo eramaten dira, Eta kontutan hartu behar da adinean ere aldea dutela. Gazteenak 28 urte ditu eta zaharrenak, berriz, 55.

### ■ Zer egiten duzue egunean zehar?

Goizeko 7:00etan esnatzen ditugu. Gosalduta eta medikazioa hartu ostean, lau Arrasateko 'Aita Menni' Ospitalera joaten dira eta beste bi, 'San Juan de Dios'era, lan taldeak osatuta baitituzte bertan eta tailerretan egiten dute lan. Eguerdiko 15:00etan heltzen dira berrim etxera eta arratsalde partean gauza desherdinak egiten ditugu aste guztian zehar. Batzuetan garbiketa, besteetan kafetxoa, eta horrela, ostegunera arte. Aste bukaeretan etxera joaten dira heraien familiekin egotera.

### • Garrantzi handia al du zuentzat familiekin duzuen erlazioak?

Noski. Gure helburua pertsona hauek beren burua zaintzea da, ahalik eta bizimodu nomialena eramatea, eta hori horrela izateko familiarekin erlazio estua eduki behar dugu. Guk, astero, teknikariarekin batera segimendua egiten diegu gaixoei, baina familiakoek ere zeresan handia dute ezagupen hori lortzeko, beraiek ezagutzen haitute ondoen pertsona hori. Gero, gure aldetik ere zaintza berezia eskaintzen dielu familiakoei hilem heraiakin bilduz, beraiei zuzendutako laguntza taldea baitugu.

### • Zailtasun handiekin aurkitu al zara horrelako pertsonekin lan egitean?

Medikazioa, higienea eta konbidentzia zaintza da garrantzitsuenak. Hori ondo eginez gero, ez da horren zaila gauzak ondo joatea. Ez dugu inoiz arazo latzik izan, pertsona hauek estabilizatuta baitaude, beraiek dinamika houetan sartuta daude. Niretzat ez dira kolektibo berezi bat eta beste edozein pertsona bezala tratatzen ditut.

### • Gaixotasun psikikoren bat duen pertsona bat eixean izan eta laguntza beharrez gero, nola jarri daiteke zuekin kontaktoan?

AGUIFESekin kontaktuan jartzea da onena 943 47 43 37 telefonora deituz. Lankide batek informazioa emango die. Zita bat eskatu eta inongo konpromisorik gabe, gure lana zer eta nolakoa den ikusteko aukera izango dute, eta baita beren dudak eta galderak argitzeko ere.


MAIDER GASTESI

## IBestelako Zinea° egitasmoaren 5. etapa jarri du martxan Ongarri line Klubak

Martxoaren 8ra bitartean zortzi pelikula emango dituzte Herriko Antzokian

Atzo, hilak 25, eskainitako liuna Papa' filmearekin hasi zen Ongarri Zine Klubaren "Bestelako Zinea 5" zikloa. Martxora bitartean beste 8 pelikula emango dituzte ostegunero gaueko 21:30ean Herriko Antzokian. Ongarri taldekoek ohilko zineaz gain beste pelikula mota batzuk ikusteko aukera eskaini nahi diote zinezaleari ziklo honen bidez.

**B**estelako Zinearen 5. etapa honek hainbat gai landuko ditu. Realismo magikoaren ildotik 'Luna Papa' eta 'Santitos' filmeak izango dira ikusgai. Bestalde, 'Orfeu' pelikulak inauteri giroan murgilduko gaitu. Zine amerikarraren beste aurpegi berri bat erakutsiko digute 'Magnolia', 'Bufallo 6 6', 'South Park' eta 'XX• fihneek eta azkenik, martxoaren San, Ernakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, 'A flor de Piel' pelikulak emakume zinernagileen lana erakutsiko digu. Pelikula guztiak 21:30ean izango dira, baina gaur, urtarrilak 26, gaueko 22:15ean zinezaleek 'Luna Papa' ikusteko aukera izango dute.



### ZINE KLUBAREN KARTELDEGIA

Urtarrilak 26, ostirala .....	"Luna Papa"
Otsailak 1, osteguna .....	"7C"
Otsailak 8, osteguna .....	"Santitos "
Otsailak 15, osteguna .....	"South Park"
Otsailak 22, osteguna .....	"Orfea"
Martxoak 1, osteguna .....	"Bufato 662"
Martxoak 8, osteguna .....	"A Flor de Piel"
Martxoak 15, osteguna .....	"Magnolia"



**aw4otiolit4 vs.**

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

**AROR** PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
Haur eta helduentzako

— Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta —  
**AFASIAK, DISFONIAK, DISLALIAK, DISLEXIAK,  
HIZMOTELTASUNA, E.L.A.**

Toribio Etxeberria 10, 6 ezk. **EIBAR**

[Tel. 943 20 27 15]

**r** **inoncloTABERNA**

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu  
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15



KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK PINTAKETA

JUAN MARI IRIONDO, Ego-Toki elkarteko atletismo batzordeko kidea

## "Nekatuta gaudelaitu etwayaki dugu Mugerza Krosaren antolaketa lagatzea"

**E Zer balorazio egiten duzu azkenengo krosari huruz?**

Oso gustura gaude, nahiz eta krosaren aurreko egunetan nahiko gaizki pasa genuen, batez ere ostiralean, Tergat eta beste keniarren atzerapena zela-eta. Ostiral goizean ziren etortzekoak eta 24 orduko atzerapenarekin ailegatu ziren. Oraindik ezin izan ditugu atzerapenaren zergatiak argitu, baina Tergat berarekin pare bat aldiz telefonoz hitz egiteko aukera izan nuen eta berak iritsiko zela agindu zidan. Tergat Elgoibarrera ekarriko genuela han eta hemen zabaldu ondoren, nahiko gaizki pasa genuen.


• **Beraz, egia da Tergat nekatuta etorri zela?**

Bai, hala da, baina Chebii irabazlea ere hegazkin berdinean etorri zen.

■ **Ikusleen erantzuna espero zenutena izan al da?**

Iaz baino ikusle gehiago izan dira, baina Tergat etorriko zela jakinik jende gehiago espero genuen.

■ **Tergatez gain, maila altuko korrikalariak ekarri dituzue aurrean, ezta?**



Bai, azken urteetako partaidetzarik onena izan dugu, dudarik gabe. Pena bat izan zen Martin Fizen azken orduko lesioa.

• **Tergat Elgoibarrera ekartzea al zen zuen asmo nagusia?**

Bai, Sydneyko olinpiadak amaitu zirenetik Tergat Elgoibarrera ekartzea zen gure asmo eta helburu hakarra. Tergat etorri izan ez balitz ez dakit nola planteatuko genukeen lasterketa, agian atleta europear gehiago ekartziz. Dena den, nik etorriko zen konfidantza nuen, eta zorionez halaxe izan da. Duela bi urte oso gustora joan zen Elgoibartik eta honek zeresan handia izan du, beste kros askori ezezkua eman baitie, Ziur nago berriz ere etorriko dela Elgoibarrera. Txapeldun handi bat izateaz gain, oso pertsona atsegina eta nmila da.

■ **Beraz, dena ez da dirua?**

Halaxe da, Sevillako Italika krosean guk baino diru askoz gehiago eskaini zioten, baina Tergatek ezezkua eman zien.

• **Ego-Toki Elkarteko Atletismo Batzordeak krosaren antolakuntza lagatzeko erabakia adierazi du.**

Bai, Ego-Toki Elkartearen barnean, Atletismo Batzordea arduratzen da krosa antolatzeaz. Batzorde honek, ni barne, antolakuntzaren ardura lagatzea erabaki du, baina horrek ez du esan nahi datorren urtean Mugerza Krosik ez denik izango, jende askok hala ulertu edo gaizki ulertu badu ere. Hemendik pare bat astera gai honen inguruan batzarra izango da Ego-Toki Elkartean eta han erabakiko da probaren etorkizuna. Dena den, Udalak ere baduela zerikusirik iruditzen zait.

• **Pertsonalki nola ikusten duzu Ningerza Krosaren etorkizuna?**

Nahiko beltz ikusten dut, baina nahiago nuke oker egongo banintz, benetan.

• **Zergatik hartu duzue erabaki han?**

Antolakuntza lagatzearen erabakia aspalditik genuen hartua, erabaki hau berretsi besterik ez dugu egin orain. Lagako genuenaren zurrumurrua kalean zen duela 2 hilabete ingurutik. ZurrumutTu hau zabaltzea komeni zitzaigun inor animatuko ote zen esperantzarekin. Hala eta guztiz, lagatzeko arrazoi nagusia nekea izan da. Nire kasuan 20 urte daramatzat eta hasieran nuen ilusio hura poliki-poliki galtzen joan naizela konturatu naiz. Ez da hitzez azaltzen erraza. Gainera, atletismoaren munduak aldaketa sakona jasan du duela 5 urte ingurutik. Orain atletekin tratua hotzagoa da, dena managerren bidez egiten da eta ondorioz, giroa ere hotzagoa da.


## Abraham Chebii keniar gazteak segundu bakarreko aldeaz irabazi zion Paul Tergat faboritoari Mugerza Krosean

Martin Fiz azkeneko momentuan lesionatu zen

**P**aul Tergat handia zen Mugerza Krosean irabazteko faborito nagusia, baina pronostikoak hautsiz, Abraham Chebii, 21 urteko keniar gazteak aurrea hartu zion Tergati eta segundu hagarreko aldeaz irabazi zion helmugan. Hasieratik hartu zuen lasterketa burua Chebiik eta ez zuen hukaerara arte laga. Tergat eta Albert Chepkurui keniar gaztea izan ziren erritmo gogorra eutsi zuten bakarrak. Chebiik Lodioko krosa irabazi du aurrean. Soriakoan bigarren izan zen, eta iazko Kros motzeko mundialean, berriz, bostgarren. Dena den, Elgoibarkoan izango da orain arteko bere garaipenik garrantzitsuenak, batez ere bere idoloari, Tergati, irabaztea lortu baitu.

### Martin Fiz-i omenaldia

Martin Fizek ezin izan zuen Mugerza Kroseko irteeran egon, hain justu Ego-Toki Elkarteak omenaldia eskaintzen zion egun berean. Beroketa ariketak egiten ari zela lesionatu zen txapelkun arabarra. Bere azken Mugerza Krosean ezin parte hartu izanaka pena eta amoma eman ziola adierazi zuen, baina baita omenaldiarekin emozio



handia sentitu zuela ere.

### Keniarrek nagusi emakumezkoetan

Sally Barbosio 22 urteko keniarrek irabazi zuen emakumezkoen lasterketa. Bigarren postua ere beste keniar batek eskuratu zuen, Naomi Mugok, alegia, iaz etiopiarrek erakutsitako nagusitasuna hautsiz. Hirugarren, Eyagayou Diababa etiopiarra izan zen. Barbosioek 10.000 metrotako munduko txapela irabazi zuen 14 urte besterik ez zituenean.



*Goian, ezkerreko argazkian, Abrahant Chehii irabazlea. Eskuntan, nesken lasterketako lehen hiru sailkatuak. Behean, larunbatean egin zitzaion olnenaldian.*

## zikloturisten irteera urtarrilaren 28an izango da

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 28an, urteko hirugarren zikloturisten irteera izango da. Plaza Handitik irtengo dira goizeko 10:00etan, eta honakoa izango da egingo duten ibilbidea: Elgoibar, Soraluze, Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Soraluze eta Elgoibar. Guztira 60 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

## Egoitz Morak urrezko domina lortu zuen Espainiako Judo Txapelketaren Iparraldeko Sektorean

**E**goitz Morak bere 'eurriulum'a potolotzeko beste garaipen garrantzitsu bat lortu zuen pasaden urtarrilaren 14an, Zaragozan. Iparraldeko Sektoreko Espainiako Judo Txapelketan hartu zuen parte 18 urteko elgoibartar gazteak, eta urrezko domina irabazi zuen senior mailan. Juniorra izanik, bera baino adin eta esperientzia gehiagoko Errioxako, Aragoiko eta Euskadiko judoken kontm neurtu zituen indarrak Egoitzek, baina beste behingoz, estatuko judokarik onenen artean arazorik gabe moldatzeko gaitasuna dueia erakutsi zuen. Urte hasieratik Usurbil Kirol Elkarteko kidea da Egoitz. Bertan, Euskadiko judo selekzionatzailearen agindupean entrenatzen du



asteen 3 aldiz eta gainontzeko 2 egunetan bere betiko lagunekin entrenatzen du Elgoibarren. Hurrengo zita datorren asteburuan, hilaren 26tik 28ra, izango du Vigon (Galizia), Espainiako Judo Txapelketa orokorra jokatu baita bertan.

## Saralegi/Txikito IX bikoteak irabazi du San Anton Pilota Txapelketa

Saralegi amezketarrak eta Txikito IX. azkoitiarrak osatutako bikoteak irabazi zuen Lagunak Pilota Eskotak antolatzen eluen San Anton Pilota Txapelketaren X. edizioa. Pasa den barixakuan. hilaren 19an, jokatu ziren finalak Ikastolako frontoian. Jendea erruz inguratu zen frontoira eta giroa ere primerakoa izan zen. Nagusien mailako finala

orekatua eta emozioz bete izan zen, baina Eguzkizak eta Beginok amore eman hehar izan zuten Saralegi eta Txikitoren aurrean. Beginok partidu amaieran ezin izan zion el TitMO biziari eutsi eta pilota gartantsituak galdu zituen. Azkenean 17 tantutan geratu



ziren. Aipagarria da Begino eta Eguzkiza izan zirela azkenengo DV torneoko garaileak, afizionatu mailako torneorik garrantzitsuenetakoa. Promesa mailako finala, berriz, Erroizena eta Argotek erraztasun osoz irabazi zuten

## Maialen Mora Euskadiko pisu jaurtiketako txapeldun



Eibarko Kiml Elkarteko Maialen Mora atleta elgoihartarrak pista estaliko Euskadiko Pisu Jaurtiketa Txapelketa irabazi zuen pasa den urtarrilaren 14an, Donostian. Maialenek 6 jaurtiketa egin zituen eta azken jaurtiketari esker irabazi zuen txapela. Izan ere, 10'90 metrotara jaurti zuen 3 kg.ko pisua. Bere marka pertsonaletik oso hurrun dago, haina aurki jokatuko den Espainiako Txapelketan parte hartzeko gutxieneko marka lortzeko balio izan zion.

## Zartako 3 kidek Elgoiharko Arku Tiraketa Txapelketa irabazi dute

'Arkulariak liga' barruan Elgoibarko Arku Tiraketa Txapelketa jokatu zen Olaizaga Kiroldegian. Gipuzkoako eta Bizkaiako 46 arkularik hartu zuten parte, tartean 7 elgoihartarrek. Elgoihartarrek maila hikaina erakutsi zuten eta 'Zarta' arkulari taldeko 3 kidek lehen postua eskuratu zuten bakoitzak bere kategorian. Gaztetxoan mailan Mikel Sastre izan zen irabazlea. Nagusien mailan Iñaki Badiolak irabazi zuen hastapen mailakoentzako kategorian. Potentzia handiena duten poleo edo lehadun kategorian, berriz, Ramon Blaneo izan zen irabazlea eta bigarren postua Zartako heste kide batentzat izan zen Itzargi Monasterioentzat, alegia. Hurrengo txapelketa otsailaren 3an izango da Durangoko Lada kiroldegian.



## EMAITZAK

### Futbola

Pedrusko 5 Elgoibar 1 (1. erreg.)  
Elgoibar 9 - Spor. Herrera (1. kad.)  
Tolosa 4 - Haundi 2 (Pref.)  
San Marcial 4 Elgoibar 1 (Oho. Jub.)  
Real Union 1- Elgoibar 10 (Oho. inf.)

### Eskubloia

Pagoaga Elg. 11 - Ermua 12 (Kad. nesk.)  
Unceta Elg. 16 - Ermua 14 (Jub. nesk.)  
Tecnifuelle Elg. 11 - Arrasate 20 (Senior mut.)  
IMS Elg. 15 - Ermua 15 (Senior Nesk.)  
Almer 14 Gaur Elg. 14 (Kad. mul.)  
Askartza Cl.30 - Pneumax Elg. 25 (Jub. mui.)  
U.P.V. 28 - I.M.H. Elg. 25 (Senior mut.)

### Esku pilota

Deharroko Txapelketa  
LoiolalUbera 10  
EtxanigAgirreberia 22 (Eibar)  
AnsolalBalzola 22  
Andonegi/Gandiaga 3 (Eibar)

Udaberri Txapelketa  
Lopetegi/Obeso 3  
Agirrebeña/Iriondo 22 (Lagunak)

Ansola/Balzola 22 (Lagunak)  
Intxausti/Rodriguez 8

### Idarraga 111feak 4. saria

HAUNDIko jokalarri erregularrena 00101  
JOKALARIA .....  
PUNTUAK

1- Zulaika .....	34
2- Laskibar .....	20
3- Lander .....	17
4- Saiz .....	16
5- Garo .....	13
6- Alkorta .....	13
7- Izagirre .....	12
8- Loren .....	9
9- Mugika .....	9
10- Gurrutxaga .....	6
11- Portu .....	4
12- Joseba .....	3

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 27  
16:30 Haundi - Zarautz (Prel.)  
18:15 Elgoibar - Ordizia (1. erreg.)  
Igandea, 28  
10:45 Elgoibar- Spot. Herrera (Oho. inf.)  
12:15 Elgoibar - Allerru (Oho. jub.)

### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunhata, 27  
15:45 Gaur Elg. - Usurbil (Kad. mut.)  
17:00 IMH Elg. Trapagaran (Senior mul.)  
Igandea, 28  
9:45 Tecnomeca Elg. - Corazonistas (Kad. mul.)  
11:00 Pneumax Elg. - Corazonistas (Jub. mut.)

## Garajeak

- Arregitorreko dorreen azpian gara-jea salgai. Tst **943 74 07 62**.

## Lokalak

\*Lokal bai alokatzen da Sania Ana lean. it **943 74 12 83**.

\*Netto merkatalgunean salmentarako prest dagoen lokala alokatzen da. 71. **943 74 45 16**.

### OHARRA:

Merkatu Kikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

## Pis Langai

Euskal Lan Zerbittua

Donostiako enpresa baterako **komertzioa** behar da. ERREF: **43728/2**.

Debagoienako enpresa baterako **finantzako 20 aholkulari** behar dira. ERREF: **42030/3**.

Gcsteizko enpresa baterako ekoizpen **eta kalitateka arduraduna** behar da. ERREF: **44628/1**.

Urola kostako enpresa baterako **bulego tekniko baterako arduraduna** behar da. ERREF: **44659/1**.

Urdulizen kokaturik dagoen enpresa baterako **nazio mailako salmentetarako arduraduna** behar da. ERREF: **45194/2**.

Eskontza hou inieresgarri gerlatzen bazaizu eta lortu nahi izanez gero, gogoan hodu eskatibaren erreferentzia. Hautagai moduan sarizea eskah, nahi baduzu 901222901 telefonoro deitu edo "Langai" k Eigoibarren dituen zeigru laguntzaile imuetako batera deinx Elgoibarko Inslimua (Albertolturri-costilloi **943 74 80 19** edo 1MH (Ekaitz Mendizabal) **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

### ESKAERA

Esperientziadun emakumea eskaintzert da arratsaldean umeak zaintzeko. **610 05 32 74**. (13:00tik 6:00m deitu).

• Jeriatria eta klinikako auxiliarrak gaixoak eta edadetuak zaintzen di ru. s609 77 01 33.

• Neska eskaintzen da portalak garbitzeko. 71. **679 21 93 01**.

• Debabarrenan publizitatea buzo- neatzeko edo kartelak pegatzeko eskaintzen naiz. v **943 74 39 11** (Maribi).

\*Orduzka lan egingo nuke eixeak garbitzen edo umeak zaintzen. Justa. tist **943 74 35 05**.

### ESKANTIA

\*Sukaidean laguntzeko emakumea behar da. Tr **943 81 56 08**.

• Debako faberna batecn kamare- roa behar da. Tr **943 19 25 40**.

• Emakumea behar da etxeko lan- nak egin eta bi haur zainitzeko. v **943 74 39 82**.

• Taberna lan egiteko mutil bai behar da. Asteaz zehar arratsalde- tan eta csie bukaeretart. zr **943 74 28 97**.

• 1. mailako ofiziala behar da mcndrinadoran lan egiteko. Euska- ra behorrezkoa da. zr **943 74 12 97/ 943 74 06 64**.

• Kamarera behar da astegunetan taberna lan egiteko. zr **943 74 42 65**.

• Informatika denda baterako infor- matikako teknikari euskalduna be- har da. IT **943 74 08 50**.

## Salerosketak

• Nintendo 64 lokua (Shodow Man) saltzen dul, tz **943 74 41 91**. (Gonza- lo).

\*Boogie bat saltzen da prezio onean, IT **646 39 87 39**. (Gauetz).

• Ohea egiten den 506 salgai. 3 pla- za, 1,35, zr **943 74 20 70**.

• Golf GTI 16V salgai. SS-AF. 350.000 pta. **606 52 50 18**. Sergio.

\*Arropa lehorgailua salgai. Crolls markakoa da eta egoera onean dago. Gutxi erobitio izan da. 15.000 pta. v **609 77 01 33**.

• Ford Fieski XR2 salgai: 1600-103 CV. 8-1S. Merke: 85.000 pta. Gauetz deitu. v **943 12 08 22**. Aitor.

## Bestelakoak

.13elarritakoa galdu dul- Perla zuri bat eta brillante bat dauka. tz **943 74 13 14**.

• Plaza Merkatu inguruan giltzak topote nituen. Koloredun (gorrio, urdina eta morea) ilabero bal dule eta kotxeko Iza dago tarreon. BARREN astekarian uzi difut.

Mendiko polaina granateak aurkiu ditui Urasandi kalean. te **943 74 36 16**.

• Caritasek hatirrenIxako `kotxesilfa' bai du emateko. tv **943 74 15 09**.

• Abuztura arte 'pasior aleman' arra- zako kakur bat gordetzeko Ixabola bai behar dut. Leire. v 658 71 **08 44**.

\*Gabonzahar egunean urrezko eraztun bal galdu nuen. st **658 10 59 34**. Kristina.

• Telebista bat behar dugu gozte lokal batetarako. -n- **943 74 37 94** (Jon).

• Urrezko seilo txiki bal galdu nuen Olentzero txikiaren kalejiran. IT **943 74 05 31**.

## Etxebizitzak

Pisuo salgai Urasandin. Oso eguz- kitsua. 3 logela, sukalde, bi komun eta egongela ditu. IT **943 74 10 00**.

\*Pisua hartuko nuke alokairuan. zr **669 73 17 74**. Iboia.

• Eixeak alokatzen dira Caulerets, Frantziako Pirinioan. Ski estaziotik 200 metrotara. 2/4/6 pioza. 20.000 pta.tik 30.000 pta.ra bitartean aste- burua. gr **0033562 925324**. Rosa.

• Pisu bat alokatuko nuke. n« **943 20 01 01**, Idoia.

\*Pisu bal behar dut, logela eta arro- pa gurbitzeko eskubidearekin. Erdigu- nean. v. **943 74 42 92**.

♦ Logela bat behar dut. tr **943 74 31 85**.

## Partikularrak

• Administrazio eta enpresa zuzendari- tzako T. mailako mcdermatikako parti- kularrak hartuko nituzke. v **943 74 20 74**.

• Turismoko ikasle batek kontabilitateko klase partikularrak emango dizkion norbait behar du. ir **943 74 41 70**.

• Mikrobiologia eta ingurugiro tekniko- an lizentziatuak, kimika, biologia, ka eta ingurugiroarekin zerikusia duten gaien klase partikularrak ematen ditu. 13:00fik, 18:00ra bitartean deitu. sr **943 74 29 85** (Maria).

\*Biologia Zientzietan lizentziatua, bio- kimika eta genetika adarretan, eta fisi- ka eta kimikako irakasle ohia. Ikasteko loguntza behar izanez gero, deitu. zr **943 74 11 82** (Joseba).

## Farmazia okindegia

### EGUNEZ

27 Etxeberria  
(Errosariolalean)  
28 Etxeberria  
(Errosario kalean)  
29 Yudego  
30 Zabaletia  
31 Etxeberria  
(Errosario kalean)

1 Escala  
2 Bidasolo

### GAUEZ

Fernandez  
Fernandez  
Yudego  
Zabaleta  
Etxeberria  
Escala  
Bida solo

### FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, I Soraluze  
Tel 943 75 16 38

### FERNANDEZ,

Herriko enparontza 4. Garagarza  
Tel. 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren 9 Soraluze  
Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

28 igandea Foteru

## Agurrak

• Zorionak Javiri, urtarriloren 20an urteak bete zituelako. Eamilariaren partez.

• Zorionak Leireri 12 urte bete diluclako. Jonen partez.

• Zorionak Pilar IkasteKeko DBHlekoiei gobonetako jaiddia irabazi zuelako. Txangoan ondo pasatzeo espero dugu. DBH 1 eko bi neskaren partez.

• Zorionak Maite De Pablori, hilaren 28an 9 urte beteko dituelako. Joseba anaiaren eta gurasoen partez.

• Zorionak Enara Arquillori, hilaren 24cin 12 urte bete zituelako. Cristinaren eta Amaiairen eta Ikastolako 6. mailakoen partez.



• Zorionak Ivan, zure namar-garren urtebetetzean ondo pasatuko zenuelakoan gaude. Herri Eskolako 3. mailako lagunak.



• Zorionak Oihane Garateri, hilaren 29an 14 urte beteko diluelako. Ondo pasa, mahaspasa. Zure familiaren eta bereziki, Gorkaren eta Leireren partez.



• Zorionak leire Ipihri, hilaren 22an 12 urte bete ziludako. Ahizpa Aneren, gurasoen, Maitane Diezen eta Paulen partez.



• Zorionak Borka Mallo Ece-narrori, hilaren 23an 11 urte bete zituelako. Aitaxo eta amatxoren partez mailasun askorekin.



• Zorionak Harritxu Zialzeta-ri, atsailaren 4an urteak beteko dituelako. Ikastolako RBH 2koen partez.



• Zorionak J.M. Martin Prietori, hilaren 25ean 3 urte bete zituelako. Guraso Victor eta Mayterers, abuelo-abuela Amalio efa Mariren, aiton-amona laure eta Piliren eta birraiton-amona Jaime, Andrecit eta Pilarren, osabcpizeba Isa, Delfin, Luis M., Agustjin eta Joseren eta Nela txakur bsoaren partez.



• Zorionak Nora Rubiori, hilaren 25ean 5 urte bete zituelako, Gurasoen, anaia Jonen, Ane lehengusinarene, ailona amonen elo Amaiairen partez.



• Zorionak Ainhoa Arebalari, hilaren 25ean urteak bete zituelako. Ikastorako DBH 2koen partez muxu, muxu, muxu... asko.

**AHOLKU**  
Zulagailu sakanak 51

**4 Anchtistegui s.a.**  
ZERAMIKAK

**ESPOSIZIOA, ALMAZENA ETA BULEGOA:**

Olaso industrialdea  
Olasope, 5

20870 - ELGOIBAR

Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71 Faxa: 943 74 37 11

**tl. IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.  
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!  
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA**

941/44 e54111 << 4/41" /

teaulaa, 16 6ettete'k.

**LARRAÑAGA**  
**WESKOLA**  
Tel: 943 74 10 11

PROG

AZIOA

URTARRI

31

eguztenct

21:30e

DIAPO IBA EMANALDIA  
Alberto Zelaia

"Lasha-Katmandu bizikietaz" (*Tibet-Plapab*)



LET E

Pedro Muguruza 8, beheha • Tel. 943 74 19 48

## 26 BARIXAKUA

19:00 IKASTOLAKO JAIALDIA

Ikastolako Frontoian  
Antolatzailea: Haizea E.T.

22:15 ZINE KLUBA  
"Luna Papa"

## 27 ZAPATUA

14:30 OMENALDIA  
Helduen euskalduntze alfabetatzeari  
Harzubi jatetxean  
Antolatzailea: Arigera proiektua

19:30-22:15 ZINEA  
"Para todos los gustos"

## 28 DOMEKA

16:31 ZINEA  
"Banpiro Txikia"  
19:30-22:15 ZINEA  
"Para todos los gustos"

## 29 ASTELEHENA

22:15 ZINEA  
"Para todos los gustos"

## 31 EGUAZTENA

21:30 DIAPOSITIBA EMANALDIA  
Toletxe tabernan

## 1 EGUENA

21:30 ZINE KLUBA  
ic (3,1416)

## 2 BARIXAKUA

22:30 ANTZERKIA  
Antzezlana: "Kaio luma zikina" (euskaraz)  
Taldea: Maskarada Antzerki Taldea  
Herriko Antzokian

## Txangoak

Otsailaren 11n, domekan, Amabirjinaren Eguna ospatzeko Lourdes-era (Frantzia) txangoan joateko aukera izango da. Goizeko 6:15etan irtengo da autobusa Elgoibartik, Bidean gosaltzeko geldituko da autobusa eta Lourdesera iristean Kalbarioak egingo dituzte. Meza entzun ostean, 'Albance' hotolean izango da bazkaria. Guztia 4.100 pta.ren truke. Informazio gehiago nahi izanez gero eta erreserba egiteko honako telefono hauetara deitu: 943 74 08 22/ 943 74 12 53/ 943 74 23 22.

## ikastaroak

Jubilatuaren Biltokiak oroimena ezagutu eta hobetzeko ikastaroa antolatu du Gizartekintzaren babesarekin. Oroimenaren inguruko ikastaroa otsailaren 8an, ostegunean, hasiko da. Informazio gehiago nahi izanez gero honako telefonora hots egin: 943 74 05 26.

## Daniza karibearrak

Haizea Emakume Taldeak erritmo karibearrei buruzko ikastaroa antolatu du. Marian Barragan irakasleak merengea, batxata, ballenatoa eta salsa irakatsiko ditu. Hastapen maila izango du ikastaroak eta taldeak mugatuak direnez, lehenbailehen izena ematea komeni da. Izena emateko azken eguna otsailaren 9a izango da. Interesatuak Pitxintxu dendara zuzendu.

1 ZINE Kluba

7C (3,1416)

Zuzendaria: Darren Aronofsky.  
Antzeleak: Sean Gullette, Mark Margolis, Ben Shenkman,  
Zerbakiengatik baliatuz mundua ulertu nahi duen matematikoa obsesionatua da Max Cohen. Bursak jokalariek eta juduek beste helburu ankerragoetarako nahi dute Maxen abilezia eta jakinduria, ordea, dirua irabazteko batzuk, eta hebrear hizkuntzako kodigoko aritmetikoak argitzeko juduek. Zientzia fikziozko thriller dugu, rap eta hip-hop musikaz nahastua. Sundance 99ko zuzendari onenaren saria irabazi zuen.



## Bilerak

GAZ-T Begirale Taldeak herriko gazteei zuzenduriko bilera egingo du datorren asteartean, hilaren 30ean, Muguruzako ikastetxe zaharrean duten lokalean. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da bilera eta Santa Ageda Eguna izango da gai nagusia. GAZ-T taldekoek herriko 'gazte guztiak animatu nahi dituzte eskera irtetzeko. Ondoren, bazkaria egingo dute agertzen diren guztiak.

## Matrikulazioak

Nagusien Heziketa Eskolako (EPA) matrikulazio epea zabalik da berriz ere. Otsailaren 2an, ostiralean, da izena emateko azken eguna. Beraz, irakurtzen eta idazten ikasi edo Bigarren Hezkuntzako titulua Iortu nahi izanez gero, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bitartean Pedro Muguruza ikastetxean eman daiteke izena edo 943 74 08 80 telefonora dei eginez. Ez dago adin mugarik eta doan da.

## Jaiak

Korrika 12a abian dela eta, AEKK antolatuta, Sagardo Eguna otsailaren 3an, barixakuan, izango da Astigarragan. Sagardo Egunaz Korrika Kulturalari hasiera emango zaio. Bertan artisau azoka, trikitilariak, bakailau Iehiaketa eta bertso trauma ikusteko aukera izango da, besteak beste. Afariak eta autobusak 3.700 pta. balio du. Txartelak

jasotzeko epea, urtarrilaren 31ra arte izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, AEK euskaltegira jo, Plaza Txikia, 3 edo 943 74 13 32 telefonora deitu.

## Santa Eskea

Santa Eskeko 'Etxegiña' taldea larunbatean, otsailaren 3an, irtengo da goizeko 9:00etan bolatokitik. Goizeko 12:00ak aldera San Lazaro egoitzara ailegatuko dira zenbait auzo eta kale igaro ondoren. Arratsaldeko 14:00ak inguruan emango diote amaiera Santa Eskeari Errosario kaleko Ama Birjinaren aurrean Salbea abestuz. Ondoren, 14:30ean, urteroko ohiturari jarraituz, 'Baltasar' elkartean bazkalduko dute. Azkenik 19:00etan meza izango da. Entsaioak urtarrilaren 30ean, asteartean, eta otsailaren leian, ostegunean, izango dira iluntzeko 20:00etan Kultur Etxeko sotoan.

## Zinea

Zinea Euskaraz egitasmoarekin jarraituz, 2001. urtean ere, Udaleko Euskara eta Kultura Batzordeek hainbat pelikula euskaraz ikusteko aukera eskainiko digute. Datorren igandean, hilak 28, 'Banpiro Txikia'ren euskarazko bertsioa ikusteko aukera izango dugu Herriko Antzokian, arratsaldeko 16:30ean. Haur eta gaztetxoei zuzenduriko film honetan Anton, bederatzi urteko mutikoaren abenturak kontatzen dira. Eskoziara joango da bizitzera eta han banpiro txiki baten laguna egingo da.

## zine

ELGOIBAR, Kap

"Para todos los gustos"

Zapatua: \*19:30-22:15

Domeka: 19:30-22:15

Astelehena: 22:15

"rt (3·14)"

Osteguna: 21:30

"Dinosaurio"

barixakua: 19:30

"Almejas y mejillones"

Ostirala: 22:15

Zapatua: 17:00-19:30-22:15

Domeka: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: \*19:30-\*22:15

"Al diablo con el diablo"

Ostirala: 19:30-22:15

Zapatua: **17:00-19:30-22:15**

Domeka: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: \*1 9:30-\*22:15

"Planeta Rojo"

Zapatua: 19:30-22:30

Domeka: 19:30-22:30

Astelehena: 19:30-22:30

"Karramarro uhartea"

Igandea: 16:30

"Planeta Rojo"

Barixakua: 22:30

Zapatua: 17:00-19:30-22:30

Domeka: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: \*19:30

"Pokemon 2"

Zapatua: 17:00

Domeka: 17:00

"El halcon ingles"

Osteguna: 20:00

Ikuslearen eguna



## "Para todos los gustos"

Zuzendaria: Agnes Jaoui.

Antzezleak: Anne Alvaro, Jean-Pierre Bacri, Brigitte Catillon.

Aktore bat ezagutzen duen enpresari baten istorioa da honakoa. Aktorea, berriz, zerbitzari baten lagunmina da, eta zerbitzaria txofer batekin lan egiten duen goardiaren laguna. Azken finean batzuren eta besteen gustoei buruz hitz egiten digu Montrealko Zinemaldian pelikula onenaren saria irabazi zuen filme honek. Berez inoiz elkar ezagutu behar ez luketen pertsonaiei buruzko istorioa da.



ste honetako erretratu zaharra Juanito Gorostizak laga digu. 1943. urtean, San Bartolome jaietan, lagun koadrila honek argazkia ateratzea pentsatu zuen eta baita erretratu dotore askoa atera ere. Donostian daudela ematen hadu ere, Elgoibarren hertan daude. Orduan ere egiten zituzten bai gauza bitxiak!! Hauek dira bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara: Rufino San Martin, Patxi Igartua, Roke Gabilondo (t), Andoni Etxebarria "Ondarru", Juanito Gorostiza eta Jabier Zengotita.


 **URKIDI** AHOLKULARITTA  
KONTABILITATE  
LAN  
FISKAL 34:  
Kalcinca, 12 EIGOIBAR  
Tel-Faxa: 943 74 18 91  
„THE HARTFORD“  
ASEGURUAK

**BOUTIQUE DEL PAN**  
Enpanadak      Enbutidoak  
Baserriko ogia      Bolleria  
SalBartolome, 6 / B. Ezenarro,      943 74 33 92

*JOSE jby;(tt ai*  
(Txema)  
Mota guztietako pintura  
eta enpapelatuak.  
Zoluak, moketak, sintasola,  
kortexoa, etab\_ jartzen dugu  
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • 11/lobila: 929 44 23 14

  
**KAFETEGIA**  
943 74 42 65

Jokaldirik ofiella!



UDAL EUSKALTEGIAK



Arexabaleta • Arrasate • Azpeilla • Beasain • Bergara  
Deba • Eibar • Elgoibar • Errenteria • Eskoriatza • Hernani  
Londarribia • Irun • Lasarte-Oria • Legazpi • Mutriku  
Pasaia • Tolosa • Urretxu • Zarautz • Zumarraga

DEBATE

UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

1111-ViCalren 29111 (otsalaren 16ra)

LEUC MAILA

GGIZEAN  
10:00-11:30 astean hirulan

GAJEAN  
20:00-21:30 astean hirutan

ERDIKO MAILA

GDIZEAN

ARRATSALDEA111  
14:45-16:15 egunero  
15:00-16:30 egunero

GaIEAN

9:00-11:00 egunero

ABRATSALDEAN

15:00-17:00 egunero



CO IZEAN

1 09:30-11:30 astelehenetik ostegunera

ABRATSALDEAN

17:00-19:00 astelehenetgt ostegueura

DEBATE UOAL EUSKALTECIBI DAANKOMIINITATEA

Natarroa Enparantia, 2 • Tel. 943 74 27 31

Inesta: elsol.easkal@udagipiekna.net

hezi.tek

heziketarako teknologia



zure informatikako  
akademia berria

IKASTARO BEREZIAK: SOLID EDGE, AUTOCAD,  
KONTABILITATE TEORIKOA... INFORMA ZAITEZ

te .: 9 4 3 7 4 8 5 8 6  
fax : 9 4 3 7 4 2 9 1 6

ELGOIBAR 2a870 Ilribarte Plaza, 3 behe  
email: [hezitek@datalogic.es](mailto:hezitek@datalogic.es)

BERGARA 20570 Telesforo Aranzadi, 3  
email: [bbergara@datalogic.es](mailto:bbergara@datalogic.es)

matrikula zabalik

# kultura

# HERRIKO ANTZOKIAN

*'Kaio luma zikina'*  
ANTZEILANA



*Otsailak 2, ostirala  
gaueko 10:30ean*

[Euskaraz]

*Maskarada*

